


**AIZPURUA BASERRIA      URBITARTE PASEALEKUA 15 (LEARRITZA)**  
**A MAILA**



**Egile eta data ezezagunak**

**Deskribapena**

XVIII. mendeko baserría, nahiz eta nabarmen eraberrituta dagoen fatxadetan eta hormigoizko forjatuetan, jatorrizko iruditik urrundurik. Oinplano angeluzuzena eta hiru isurkiko estalkia du, eta behe oinaz, lehen oinaz eta estalkipeko oinaz osatzen da. Fatxada nagusia hegoalderantz dago orientatuta eta karrerape bat du behe oinean. Jatorrizko elementuetako batzuk harrizko fabrika eta zurezko egituran ditu. Nabarienak, alde batetik, kateatuen silarrietan eta karrerapearen pilareetan daude, eta, bestetik, fatxada nagusiko bilbaduraren habeen zurezko piezetan. Era berean, aipagarriak dira ekialdeko fatxadako arku zorrotza eta leiho bikia. Badira beste elementu berri batzuk; hala nola, bilbadura horren plementuek osatzen duten adreilua eta, nabarmenki, alboko fatxadaren zenbait bao, harri azpadura faltsuez eta pertsiana bilgarriez.

**Babes erregimena**

- \* Erregimen orokorra:  
Plan Berezi honen A babes mailan sartzearekin loturikoa.
- \* Berariazko erregimena:  
Interes historiko-artistikoko probintzia monumentu deklaratu izanaren ondoriozkoa –1964-1-17ko Ministro Aginduaren bidez (52. BOEa, 1964-2-29koa)– eta "Santiago bidea" multzo monumentalean sartu izanaren ondoriozkoa (halakotzat deklaratu zuten urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuaren bidez).
- \* Eragindako ingurunea: adierazitako aginduan ezarritakoa.
  - \* Eragindako ingurunea: adierazitako aginduan ezarritakoa.